



TOLOSAKO JAIEN BERDINTASUN BEHATOKIA: INAUTERIAK 2023

INAUTERIEN ANALISIA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. KOMUNIKAZIOA	4
2.1. Liburuxka eta eskuorria	4
2.2. Kartela	5
2.3. Agerraldiak	6
2.3.1. <i>Inauterien berri emateko agerraldia</i>	6
2.3.2. <i>Kabi Alai: Inauterizale Kuttuna</i>	7
2.3.3. <i>Ostegun Gizeneko omenduak</i>	8
2.4. Hedabideetan	9
2.5. Berdintasun ikuspegitik ondorio batzuk	10
3. EGITARAUA	12
3.1. Pregoia eta txupinazoa	12
3.2. Musika taldeak	13
3.2.1. <i>Gaueko musika: Txosnaguneko Kontzertuak eta Txarangak</i>	13
3.3. Karroza eta konpartsak	17
3.4. Berdintasun ikuspegitik ondorio batzuk	19
4. INDARKERIA MATXISTA	20
4.1. Kanpainaren xehetasunak (bideoa eta euskarriak)	20
4.2. Indarkeria-protokoloak	21
4.2.1. <i>Txosnagunea</i>	21
4.2.2. <i>Udalekoa</i>	21
4.3. Berdintasun ikuspegitik ondorio batzuk	22
5. ONDORIOAK	23

1. SARRERA

Tolosako udalak 2010. urtetik darama jaietan berdintasun ikuspegia txertatzen era aktibo batean. Urteetako prozesuari jarraipena eta egonkortasuna emateko asmoz, 2017. urtean Tolosako Jaien Berdintasun Behatokia diseinatu zen. Behatokiaren helburua berdintasun politikak modu estrategiko, sistematizatu eta eraginkorrean aplikatzeko tresna izatea da, jaiak berdinzaleagoak izan daitezen. Helburu hori betetzeko, Berdintasun Departamentuak, Jaiak Departamentuarekin elkarlanean, Behatokia lideratzen du gainerako udal departamentuen partaidetzarekin.

Ez dugu ahaztu behar Behatokia, epe luzeko ikuspegian, hobekuntza iraunkorrean eta progresibotasunean (funtzioak, eragile partaideak, lanketa-esparruak eta jaiak hazten joango dira) oinarritzen dela. Ideia hori azpimarratu behar dugu, hain zuzen ere, Behatokia udalarentzat eta herriarentzat tresna “bizi” bezala ulertu behar delako; hau da, momentuan momentuko jaietara eta Tolosar jendartera egokitu behar dena.

Inauteriak aztertzen 2018an hasi zen. Hasieran analisi sinple bat egiten zen. 2020an lehenbiziko aldiz azterketa sakonagoari heldu zion eta 2023an, berriz, azterketa hori errepikatzea erabaki zen. Aztertu diren gaien artean, gaueko musika, karrozak eta konpartsak, Txupinazoa eta pregoia, komunikazioa eta indarkeriak daude. Atal guztien amaieran “txalotzekoak” eta “hobetzekoak” taula jaso da. Bertan, arlo horretan berdintasuna bultzatzen dituzten gaiak eta berdintasun ikuspegitik hobetu beharrekoak jasotzen dira.

Gora Tolosako Inauteri berdinzaleak!

2. KOMUNIKAZIOA

2.1. Liburuxka eta eskuorria

Liburuxka eta eskuorria sortzeko azpikontratatzan den enpresari jaietako arduradun teknikoak irizpideak ematen dizkio; ondoren, egindako lanari, irizpideak oinarritzat hartuta, oniritzia ematen zitzaion. Irizpide horiek modu horretan jasotzen dira:

Era berean, publizitate-atalak bat egiten du udalak bere jarduerarako ezarriak dauzkan zeharkako irizpideekin; berdintasunaren alde eta indarkeriaren aurka, besteak beste.

JAJETAKO PROGRAMA OFIZIALAREN EDUKIEN HIZKUNTZA ETA BERDINTASUN IRIZPIDEAK

Jaietako programetan txertatutako informazio orok (testuak, argazkiak, marrazkia, eta abar) bat egin beharko dute Tolosako Udalak euskararen sustapenerako eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako ezarrita dituen irizpideekin, eta hala, alor batean zein bestean jaulkitako ordenantzak bere horretan bete beharko ditu.

Hizkuntzaren kasuan, zehazkiago, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 1990eko abuztuaren 10ean argitaratutako ordenantzearen 28. artikulua araberak, euskarak erabileraren lehenetsia izango du [...].

Berdintasunari dagokionez, alor honetan lengoaiak eta irudiak duten garrantzia aintzat hartuta, publizitate euskarrietan ezingo da irudi edo eduki sexistarik erakutsi. Horrela, esplizituki gaitzesgarriak diren irudiak baztertzeaz gain, gizonen eta emakumeen arteko estereotipoak gaitzitu dituzten edukiak lehenetsiko dira.


Oniritzi horretarako, Berdintasun Departamentuaren laguntza du; hau da, Berdintasun Departamentuak argazkiak eta testuak gainbegiratzen ditu, eta gomendioak ematen ditu aldaketak egiteko. Hala ere, aurtengo programan **iruditegi eta hizkuntza ez-sexistaren alde egin den lana goraiatu** nahiko genuke. Ez zen bakarrik kontuan hartu **emakumeen artean egon daitekeen aniztasuna; jatorri eta funtzionalitate aniztasuna ikusarazi** zela ere aipatu behar da. Horretaz gain, gizonezkoak zaintza lanetan ere irudikatzen saiatu zen.



Bestalde, nabarmendu nahiko genuke programak **Behatokiak azken urteetan landu dituen gaiak, azpimarratutako praktika onak edo egindako gomendioak irudietan jasotzen jakin zuela komunikazioaren bitartez, era horretan, egindako bidea indartuz;** hala nola, emakume musikariak, kaldereroak, txistularien bandan neska ikasleak, Pintxana Txaranga eta abar.



Gainera, liburuxkak **Joka Sano. Ondo pasa, pasa gabe!!!** kanpaina jaso zuen. Honekin batera zerbitzuen direktorioan **Sexu Bizi** gune morearen kokalekua argi eta garbi jaso zuen.




2.2. Kartela

Lehenbiziko aldiz, Inauterietako kartela lehiaketaren bitartez aukeratu zen. Orain arte Tomas Hernandez Mendizabalek sortzen zituen, baina haren heriotzarekin batera kartelaren aukeraketa-sistema aldatzea erabaki zen. Horrela, aurtengo irabazlea **Laura Sanz** izan da, emakumea.

Kartel lehiaketarako irizpideak San Joanetan erabilitako irizpide berdina izan ziren, eta **genero** berdintasuna bultzatzeko asmoz honakoa izan zen ezarritako **irizpidea**: *“Generoen irudikapenean erabilitako irudiek oreka bilatuko dute, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeraren arloan diferentzien tratamendu gutxiesgarria ekidinez”.*

Beraz, egileei argi uzten zaie parte hartzeko haien lanek berdintasun-irizpideak bete behar dituztela; ondorioz, irizpide horiek lehenbiziko galbahea dira kartelen aukeraketaren lehenbiziko fasean.

Irabazitako kartelak berdintasun **irizpideak betetzen zituela** esan daiteke.



2.3. Agerraldiak

2.3.1. Inauterien berri emateko agerraldia

Urtero bezala, aurten ere, Tolosako Inauteriak iragartzeko agerraldi publikoa egin da. Bertan udal ordezkariak gain, herriko hainbat eragile elkartu ziren. Urtero egin ohi den bezala, agerraldi publikoaren parte-hartzea asko zaindu zen. Aurtengo kasuan, **parekidea izan da emandako irudia: 7 emakumek (% 58) eta 5 gizonek (% 42)** osatu dute agerraldia.

Bestalde, urtero bezalaxe, agerraldian Inauterietako kartelaz gain, **Joka Sano kanpainako kartela ere agerian** egon zen eta **Sexu Bizi gune morearen berri** eman zen. Gainera, **eraso matxistarik gabeko jaien aldeko mezua zabaldu** zen eta egon daitezkeen **baliabide guztien berri** eman zen.

Gai horri dagokionez, **Behatokitik agerraldietarako emandako berdintasun-gomendio guztiak sistematizatuta eta barneratuta zeuden.**



Iturria: Ataria

2.3.2. Kabi Alai: Inauterizale Kuttuna

2023ko Inauterizale Kuttuna **ANTXON ELOSEGI** izan da. Bere bitziza osoa Tolosako kultura eta proiektu soziokulturalak bultzatzen pasatu du; ondorioz, inauteri ondareaz egin duen defentsagatik, bilakaeran parte izateagatik eta sustatzeagatik izan zen aukeratua.

Urtero bezala, Inauterizale Kuttunak Inauteriei hasiera ematen dien suziria bota zuen Ostegun Gizenean; kasu honetan, Antxon Elosegik. Inauteri zale kutunaren bitartez, pertsona bat edo kolektibo bat omentzen da. Kasu honetan, **gizon bat izan zen omendua.**

Agerraldi publikoa Inauterizale Kuttuna iragartzeko

Kabi Alai Kuttunaren berri emateko egin zen **agerraldi publikoan irudia berdinzalea izan zen.** 3 lagunek parte hartu zuten agerraldian: Izarne Iglesias zinegotzia, Itziar Olaetxea eta Imanol Odriozola Kabi Alaiko bazkidea.

Azkenengo urteetan bezala (2017, 2018, 2019, 2020, 2022), Kuttuna izendatzeko egiten zen **agerraldi publikoan parekidetasun irudia barneratuta zegoela** esan daiteke, zalantzarik gabe azkeneko urteetan hau zaindu baita. Horrekin lotuta, berdintasunaren eta indarkeria matxistaren inguruan *Kuttuna* omenaldiak ez zuen eman gairekiko konpromisoaren eta sentsibilitatearen berri.

Nola aukeraten da Inauterizale Kuttuna?

Kuttuna izendatzeko prozesuan indarrean dauden irizpideak honakoak dira:

- Tolosarra izatea,
- Adin nagusikoa,
- Inauteriei denbora ematea.

Dirudienez, **irizpideen artean ez dago berdintasuna** kontuan hartzen duen irizpiderik. Bestalde, Kuttuna aukeratzeko prozesua irekia da; hau da, Kabi Alaiko edozein bazkidek egin dezake proposamen bat. Elkartean, jatorrian, orri bat jartzen zen eta bertan edozein bazkidek jar zezakeen bere proposamena. Gaur egun emailaz egiten da. Gero afari baten bueltan proposamen bakoitza defendatzen da eta bertaraten direnen artean aukeraten da urteko Kuttuna (Kuttuna 2011n sortu zen).



Iturria: Ataria

2.3.3. Ostegun Gizeneko omenduak

Udaletxeko udalbatza-aretoan, Inauterietako Udal korporazioa parodiatzen duen Kabi Alaik izendatutako Inauterizale Kuttunari orogarrri bat ematen dio omenaldiaren lekuko legez. Udal-korporazioa parodiatzeko ardura Kabi Alai elkarte gastronomikoaren esku gelditzen da. Horretarako, gonbidapen zabala eta irekia egiten da; ondorioz, korporazioa bazkideak diren pertsonak eta bazkideak ez direnak osatzen dute.

Urtero, Inauterietako korporazio gisa **parodia horretan parte hartzen duten pertsona gehienak gizonetzkoak dira; aurten bost emakumezkoak parte hartu dute**. Hala ere, aipatu behar da **Kabi Alairen eta Behatokiaren** azkenengo urtetako **elkarlanaren ondorioz emakumeen parte-hartzea korporazioaren rolean igotzen joan dela**.

Igoera horren zergatietako bat udal korporazioaz mozorrotzeko gonadun arropak lortzean egon zen. Hau da, Kabi Alaik Behatokiari emakumeak parte hartzeko prestutasuna zutela adierazi zion, baina emakumezkoek jantzi nahi zituzten arropak (gonadun trajea) jostea garestiegia zen. Ondorioz, udalari horretarako laguntza eskatu zitzaion. Eskaera hori baloratu ondoren, Udalak soberan zituen gonadun arropak Kabi Alairi dohaintzan eman zizkion emakumeen parte-hartzea sustatze aldera. Irekitako ibilbide hori jorratzen jarraitzen dute udalak eta Kabi Alaik, esparru honetan emakumeen parte-hartzea handitzen joateko.

Parodia horretan, korporazioaz gain, beste rol batzuk daude, hala nola, bordondantzariak, municipalak eta atezainak. Kasu honetan **denak gizonetzkoak izan ziren,** batzuk “gizonez” mozorrotuak eta beste batzuk “emakumez”.



Iturria: Ataria

2.4. Hedabideetan

Hedabideei dagokienez, **Tolosako Atarian inauteriei buruzko eta berdintasun- edo genero-ikuspegia duten hainbat artikulua argitaratu** dira, azkenengo urteetan egin den legez. Adibide horiek irizpide hartuta, Tolosako Atariak inauterietan emakumei ahotsa eman zien, inauterien inguruko artikuluetan eta kroniketan genero-ikuspegia txertatu zuten (emakumeek egiten dituzten jarduera edo ekintzak bistaratuz, gertatzen denaren inguruko genero hausnarketa eginez, eta abar), erabilitako argazkietan emakumeen eta gizonen presentzia zaindu zuten, eta emakumeak ohikoak ez diren ekintzetan erakutsi zituzten. Horretan guztian azpimarratuko genituzke alde batetik otsailaren 15ean festa lehertu bezperan [Mila Garcia de Iturrozperi](#) egindako elkarrizketa eta otsailaren 22an [Henar Martinezi](#) egindakoa, eta bestetik, argitaratutako [emakumezkoen Inauterietako pelota](#) partidaren berri ematen zuen berria.

Atariak azkenengo urteetan kazetaritza beste modu batean egiteko konpromisoa hartu duela agerikoa da. Dirudenez, kazetaritza egiteko moduan genero-ikuspegia txertatu du. Horrela, Inauterietako iruditeria berriak eraikitzen laguntzen ari dela ezin da ukatu. Iruditeria berriak sortzeko eta indartzeko lan horretan, emakumeak eremu eta ekintza ezberdinetan bisibilizatzen dituzte eta gertatzen ari denaren genero-ikuspegia txertatzen dute; modu horretan, errealitateari fidelagoa den narrazioa eskaintzen dio eta gertaerak ulertzeko gakoak ematen ditu. Ondorioz hedabideak jaiak berdinzaleagoen aldeko bidean tresnak esanguratsuak direla baieztatzen dugu.

Sare sozialei dagokienez, aurreko urtean bezala, aurten ez da sare sozial berezirik egon gaia jorrazteko. Ondorioz, Udalak bere sare sozialak erabili zituen Inauterien berri emateko. Sare sozialetan, jakina denez, argazkiek gehienetan testuak baino garrantzia handiagoa dute. Hori dela eta, **irudietan emakumeak eta horien aniztasuna bermatu zela esan daiteke**. Bestalde, **berdintasun-arlotik indarkeria matxistaren aurka bultzatutako kanpainetako eta arrazakeriarik gabeko Inauterien aldeko erakusleihoak** izan ziren.

Bestalde, aurten, sare sozialak ez dira albisteak edo kronikak sortzeko erabili, besterik gabe informazioa eta, ahal izan den neurrian, sentsibilizaziorako erabili dira. Honekin azpimarratu behar da, Inauterien bezperetan, [otsailaren 13an 2022ko San Joanetako Behatokiaren txostenaren berri](#) eman zela.

2.5. Berdintasun ikuspegitik ondorio batzuk

TXALOTZEKOAK	HOBETZEKOAK
Liburuxkan eta eskuorrian genero ikuspegia txertatzeko lan handia egin zen, eta orain arteko iruditegi eta hizkuntza ez-sexista bermatzeaz gain, emakumeen eta gizonen irudi berdinzaleak eta estereotipoak gainditzen dituztenak erakusteko ahalegin nabarmena egin zen. Gainera, indarkeria matxistaren aurkako kanpainaren berri eman zen eta 'gune morea' zerbitzuen mapan kokatu zen.	Inauterizale Kuttunaren inguruan ez zen berdintasun-ikuspegia txertatu. Hau da, aukeraketan ez zen genero-irizpiderik txertatu; ondorioz, arriskua dago genero estereotipoak erreproduzitzeko, alegia, gizonetzkoen alde egiteko. Era horretan, emakumeek inauterien testuinguruan egiten dituzten ekarpenak ezkutuan eta aitortza publiko gabe gelditzeko arriskua iraurarazten da. Hobetzeko, Kuttunaren aukeraketan berdintasun-irizpideak txertatzea gomendatzen dugu.
Inauterietan kartel-lehiaketa jarduera berria bada ere, San Joan jaietan aspalditik egiten da kartel-lehiaketa, eta eskarmentua dago. Beraz, San Joanetako erabiltzen diren irizpide berdinzale berdinak erabili ziren inauterietan. Inauteri hauetan, kartel-lehiaketako irabazleak emakumea izan da.	Ostegun Gizeneko omenduetan, nahiz eta emakumeen partaidetza igo, jarduera maskulinizatua izaten jarraitzen du. Udal gobernuak parekideak diren garai hauetan, parodia eta errepresentazio publikora salto egiteko orduan, gizonen nagusitasuna nabarmentzen da, eta horrek berdintasun-alorrean egindako aurrerapausoak ezkutuan gelditzea dakar.

<p>Inauteriak aurkezteko agerraldian berdintasun-irizpideak eta jaietako indarkeria matxistaren kontrako irizpide guztiak sistematizatuta eta barneratuta zeuden.</p> <p>Kabi Alai Kuttunaren berri emateko agerraldian ere, irizpide horiek erabat bete zirela esan daiteke.</p>	<p>Korporazioan emakumeak txertatzeko egin den lanarekin jarraitu eta egon daitezkeen zailtasunak identifikatzen jarraitu.</p>
<p>Ostegun Gizeneko omenduen agerraldian gero eta emakume gehiago daude korporazioan, eta gainera, partaidetzarako identifikatutako oztopoei (arropa), udalarekin elkarlanean egin zitzaizen aurre.</p>	<p>Orain arte argitaratzen diren hedabideez gain, beste hedabide batzuetan ere artikuluak argitaratu.</p>
<p>Iruditeria berdinzaleago baten alde Tolosako Atariak egiten duen lana txalotzekoa da, bai emakume anitzen presentzia ikusarazteari eta aitortzeari dagokienez, bai indarkeria matxistaren kontra egiten duten lanketari dagokionez.</p>	

3. EGITARAUA

3.1. Pregoia eta txupinazoa

Urtero bezala, Kabi Alai elkarteak arduratu zen Inauteriei hasiera emateaz, ohikoa den Inauterietako korporazioak egiten duen [pregoiarekin](#) eta ondorengo aldarriarekin. Aurten, medikuz mozorrotuek udaletxeko balkoia hartu dute [Kapitolioari asaltoa](#) irudikatzen zuten bitartean, ondoren Tolosaldearentzako ospitale publikoa eskatu zuten. Amaitzeko, Antxon Elosegik suziria bota zuen eta Kabi Alaiko txarangak musika jarri zion plaza zaharrari.



Iturria: Ataria

Lehenengo atalean adierazi den bezala, **Inauterietako korporazioan gero eta emakume gehiagok hartzen dute parte; aurten 5 emakumezko** izan dira. Aipatu bezala, hazkunde hori udaletxeak mozorrotzeko eskainitako gonadun traje gehiago eskura jartzearen ondorioz izan da; aurten 3 traje izan dira. **Azkenengo urteetan gertatu den legez, alkatearekin batera (Patxi Amiano) emakumezko batek ere hitza hartu zuen (Itxaso Urdanpilleta).**

Aldiz, aldarrian parte hartu zutenen gehiengoa, bi emakumezko izan ezik, gizonezkoak izan ziren. hori horrela zergatik gertatu zen ez dugu ezagutzen.



Iturria: Ataria

Bestetik, parodian esaten direnen inguruan ez zitzaien inongo keinurik egin jai berdinzaleei, ezta indarkeriarik gabeko jai batzuen alde ere. Sinboloei dagokienez, batzuk soilik eraman zituzten indarkeriaren kontrako txapak eta pegatinak.

Amaitzeko Kabi Alaiko txarangak musika jarri zuen festari hasiera emanez. Txaranga hau gizonez bakarrik osatuta zegoen.



Iturria: Ataria

3.2. Musika taldeak


Atal honetan, **gauean zehar programatu diren kontzertuak kontuan hartuko dira, bai txosna gunean, baita inauterietako beste eremu batzuetan ere.** Gaueko kontzertuak esaten dugunean, 19:00etatik aurrera programatu ziren musika-jardueraz ari gara. Aurten, **lehenbiziko aldiz azterketa honetan, ordu honetan jo zuten txarangak ere aztertu dira.** Momentuz, gai honetan egiten den azterketa guztiz kuantitatiboa da eta kontzertuen eta txarangen analisia egiteko orduan, musika-taldeen sexu osaera bakarrik hartu dugu kontuan; alegia, ez da bestelako irizpiderik kontuan hartu analisi hau egiteko orduan.

3.2.1. Gaueko musika: txosnaguneko kontzertuak eta txarangak


Datu horiek aurkezten hasi aurretik, ohar bat aipatu beharrea gaude: musika ekitaldietako sexuaren araberako datuak lortzea ez da erraza izan, txarangetako kideen kopurua oso aldakorra izan zelako ekitaldi batetik bestera, eta txosnaguneko kontzertuak udalak antolatzen ez dituzenez, horien inguruko informazioa eskuratzea zailagoa delako. Horregatik, Behatokiko datuek gorabeheraren bat izan dezakete. Hala ere, egon daitezkeen gorabeherak ez dute joera eraldatzeko gaitasunik.

Ondoren, gaueko musikari dagokionez, txosna gunean 16 musika-jarduera programatu ziren eta txarangak 17 aldiz programatu ziren.


Hau argituta, adierazi dezakegu, 2023ko datuen arabera, Inauterietan **programatutako musika maskulinizatuta egon zela.** Datuen arabera, jo zutenen % **91 (325) gizonezkoak** izan ziren eta % **8,31 (27) emakumezkoak.** Behatokitik egindako analisisietan sarritan aipatu da gaueko kontzertuak zein txarangak bereziki maskulinizatutako musika-eremuak direla, eta horren isla dira datuak ere.



33 musika-ikuskizun egon ziren guztira, nahiz eta 30 musika-talde eta txaranga programatu (txaranga batzuek behin baino gehiagotan jo zuten). Ekitaldi horietan, **gizonez bakarrik osatutako taldeak % 63** izan ziren, eta **% 37 mistoak. Ez zen egon emakumeek soilik osatutako talderik.**



Talde mistoei (taldean neska, mutilak edota beste genero batzuk) dagokienez, **% 82 (9) maskulinizatuak izan ziren, % 9 (1) feminizatuak eta % 9 orekatuak (1)**. Datu horiekin, agerian gelditzen da emakumeen presentzia egonda ere, gizonen proportzioan baino baxuagoan izaten direla taldeko kide.









2023ko eta 2020ko analisi konparatua

Alderaketa irizpide berdinekin egin ahal izateko, 2023ko datuei txarangen datuak kendu dizkiegu. Horretaz gain, aipatu behar da 2020an 15 musika-jarduera programatu zirela eta 2023an 16.

2020ko datuekin alderatuta, 2023an datu orokorrak okertu direla esan dezakegu. Aldiz, aldagai batzuetan hobekuntza txikiak egon ziren; hala ere, hobekuntza horiek zirkunstantzialak izan zirela susmatzen dugu:

- Emakume musikari gutxiago egon ziren oholtzaren gainean.
- Taldeen osaera: aurreko neskek osatutako talderik ez da programatu, aldiz talde misto batek gehiagok jo du.
- Talde mistoen osaketan, 2020arekin alderatuta, talde misto orekatu bat programatu zen. Aldiz, maskulinizatutako eta feminizatutako talde mistoen datuak mantendu ziren: bi urteetan talde bana.






Gaueko Txarangak

Lehenbiziko aldiz, Behatokitik txarangen analisi kuantitatibo bati heldu zaio. Txarangak, oro har, oso maskulinizatuta daudela jakina da, baina usteetatik haratago joatea ere komeni da egoerei aurre egin nahi bazaie. Analisi honetan kontuan hartu behar da kasu batzuetan ezin izan dela txaranga batzuen kideen kopurua kontrastatu; beraz, txarangen datuetan gorabehera batzuk egon daitezke. Hala ere, zenbakiak zeintzuk diren ikusita, egon daitezkeen zehaztasun faltak ez du hausnarketa asko aldatuko. Gaiarekin jarraituz, gauetan programatutako txarangen analisi kuantitatiboaren emaitzak honakoak dira:

Guztira, gauean jo zuten **txarangentan, % 93 gizonezkoak** ziren (275 musikarietatik 256). **Emakumeen** partaidetza, beraz, **% 6,91 izan zen** (19 emakume). Aurretik aipatu bezala, datuok gutxi gorabeherakoak direla hartu behar dugu kontuan.



Gauean 17 aldiz programatu ziren txarangak, baina **14 txaranga** ezberdinek jo zuten. 14 txaranga horietatik **6 mistoak** izan dira eta beste **8ak gizonen bakarrik osatuak**. Ez zen egon emakumeek osatutako txarangarik. Talde misto horietan arreta gehiago jartzen badugu, emakumeen presentzia askoz baxuagoa zela ikusiko dugu. Izan ere, **talde misto guztiak maskulinizatuak ziren**; hau da, gizon gehiagok hartu zuten parte emakumeek baino.

Genero-berdintasunari dagokionez, inauterietan programatzen den gaueko musikaren eta kontzertuen inguruko hausnarketa serio bat egitea merezi duela azpimarra dezakegu: bai udalak, baita txosna batzordeak ere programatzen dituzten gaueko kontzertuei dagokienez. Izan ere, **udalak planteatzen dituen irizpideak ez daude herri-eragileekin hitzartuta, eta hori etorkizunean kontuan hartu beharko litzatekeen gaia da.**

3.3. Karroza eta konpartsak

Aurten, **epaimahaia udaleko 3 langilek osatu dute**: jaietako teknikariak eta gazterriko 2 teknikariak. Epaimahaiaren alor horretan aldaketak egon ziren, ordura arte aurreko urteko irabazleek parte hartzen zuten erabakian, baina hori aldatzea erabaki zen, eragileen beraien eskaera baten ondorioz, hain zuzen ere. Aurreko epaimahaiak zituen bezala, **epaimahai honek beste irizpide batzuekin batera berdintasun-irizpideak izan zituen karrozak eta konpartsak baloratzeko**. Irizpideek honela diote:

Irizpideen helburuak:

- Tolosako jai-eremuan emakumezkoen eta gizonzkoen arteko berdintasunezko harremanak indartzea.
- Emakumezkoen parte hartzea eta protagonismoa nabarmentzea, kultura- eta jai-dinamiketan, eta, oro har, eremu publikoan.

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta sexu-genero aniztasunaren aldeko mezu sinbolikoen eta kulturalen sorrera sustatzea jaietako jardueretan.

Zer da baloratu behar dena berdintasun irizpideen arabera?

- Oro har, modu positiboan baloratuko dira harreman parekoak islatzen dituzten karrozak eta konpartsak, edota emakumezkoen partaidetza bultzatzen dutenak eta emakumeenganako edo bestelako identitate sexualenganako (lesbianak, homosexualak, transexualak, intersexualak...) pentsamolde diskriminatzaileak saihesten dituztenak.

Zer ez den berdintasuna:

- Emakumeen gorputzaren balore sexuala nabarmentzea gainerako giza gaitasunen eta ezaugarrien gainetik.
- Mezu baztertzailak, sexistak, homofoboak eta arrazistak bidaltzea

2023an 22 karrozek eta 26 konpartsek parte hartu dute. Hala ere, herrian zehar bestelako "plataforma" gehiago zeuden lehiaketan parte hartu ez zutenak. **Azpimarratu behar dugu karrozetan denak mistoak izan zirela, bat izan ezik** (gizonez soilik osatuta zegoen). **Konpartsetan, gauza bera.**

Lehenago azaldutako irizpideak kontuan hartuta, epaimahaiak karrozen kategorian 'Kilo Fashion Wek' irabazle izendatu zuen, bigarren saria 'Ixabelen heriotza'ri eman zion eta hirugarren postua 'Txurigote'rentzat izan zen. Konpartsen kasuan Tolatatto izan zen irabazlea.



Iturria: Ataria

Berdintasun-saria

Berdintasun-saria 2015ean estreinatu zen eta urtero banatu da, baina eragileekin eta udalaren barruan sarien inguruan egindako hausnarketaren ondorioz, sari hau etetea erabaki zen. Orain arte Leidorren egiten zen sari-banaketa bertan behera uztea adostu zen eta horren ordean, irabazleek hurrengo urteko lekua aukeratzeko pribilegioa irabaziko dute. Aldaketa horien aurrean, lehen berdintasun-saria aukeratzeko erabiltzen ziren irizpideak lehiaketa arrunteko irabazleak aukeratzeko prozesuan integratu ziren; modu horretan, irabazten duten karroza eta konpartsa guztiek berdintasun-irizpideak betetzea bermatzen da.

3.4. Berdintasun-ikuspegitik ondorio batzuk

TXALOTZEKOAK	HOBETZEKOAK
<p>Inauterietako korporazioan gero eta emakume gehiagok parte hartzen dute, aurten 5 izan dira.</p> <p>Txupina eta pregoiaren momentuan hitza hartzea parekidea izan zen.</p> <p>Udalaren "asaltoan" emakumeek parte hartu zuten.</p>	<p>Txupina eta pregoian nahiz eta emakumezkoen partaidetza igo, partaidetza ez zen parekidea izan. Egokia litzateke hori bermatuko duten irizpide batzuk edo plan bat ezartzea. Parekidetasun- eta genero-irizpideak sistematizatu ezean, garaian garaiko antolatzaileen sentsibilitatearen pean egongo da.</p>
<p>Karrozetako eta konpartsetako epaimahaiak berdintasun-irizpideak kontuan izanda banatu zituen sariak.</p>	<p>Programatutako musika maskulinizatuta egon zen. Egokia litzateke txosnagunearekin udalak dituen irizpideak partekatzea eta sinergiak bilatzea.</p>
<p>Karroza eta konpartsa gehienak mistoak izan ziren, bat izan ezik.</p>	<p>Gauetan programatu diren txarangen datuak ikusita gai honi poliki-poliki heltzea komeniko litzateke.</p>

4. INDARKERIA MATXISTA

4.1. Kanpainaren xehetasunak (bideoa eta euskarriak)

Urtero egiten den bezala, Udaletik Berdintasun Departamentuak zuzentzen eta diseinatzen duen sensibilizazio kanpaina bat bultzatu zen.

Dagoeneko sustraituta dagoen eta zeharo ezaguna den Joka Sano! Kanpainak honako euskarriak izan ditu:

- **Sexu Bizi-Gune Morea:** lehen aldiz gune hau martxan jarri zen. San Frantsizko kalean egon zen otsailaren 19an eta 20an 24:00etatik 03:00etara. Gune horren helburua Indarkeria matxistaren ienguruan informazioa, prebentzioa eta aholkularitza ematea izan zen eta harreman eta sexualitate osasuntsuak bultzatzea.
- **Joka sano! Pegatinak eta GIFa:** udal-eraikin publiko guztietan eskura egon ziren (Kultur Etxea, UDATE, Musika Eskola, Gizarte Zerbitzuak). Horretaz gain, Ailaket zerbitzuan (gazteen Botiltzarrean banatzeko), Kabi Alai elkarteko eta karroza eta konpartsen ordezkarien artean ere banatu zen. GIF-a WhatsApeez banatu zen.



- **Joka sano! Kartelak eta iragarkiak:** inauterietako programan eta herriko panel elektronikoetan, tabernetan eta merkataritzan banatu ziren. Kartelean Gune Morearen berri eman zen eta udaltzaingoaren telefonoa gehitu zitzaion.



- **Puntu moreak:** udal eraikin publiko guztietan, saltoki eta tabernetan eskura egon ziren.

- **Bideoa**¹: Tolosako Asanbladarekin kontrastatu zen eta udaleko eta Berdintasuneko sare sozialetatik zabaltzeaz gain, herrian dauden panel elektronikoetan eta Leidorren ikusgai egon zen.

Aipamen berezia merezi du aurrean, lehenbiziko urtez, jarritako 'SEXU BIZI' Gune Moreak (babes gunea). Gune horren berri Berdintasun arloko kontaktu guztiei banatu zitzaizkien korreoz, eta sare sozialetan zabaltzeko. Horretaz gain, tabernariei eta ikastetxei ere eman zitzaizkien horren berri.

'SEXU BIZI Gune Morea' BiziBitxi Psikologiatik eskaini zen osasun-prebentzioko programa da. Informazioa, aholkularitza eta genero erasoen aurkako babes eskaini duen gunea da. Eskuhartzeak harreman eta sexualitate osasuntsuak bultzatzea izan zuen helburu, prebentzioa osotasunean landuz eta jai inguruetara hurbilduz.

SexuBizi Gunean indarkeria matxistari aurre egiteko bitartekoak eskuratu ahal ziren: babes fisikoa, laguntza emozionala, informazioa, aholkua eta biderapena, besteak beste 15 urtetik gora hurbiltzen ziren pertsonentzat.

Guztira 552 pertsona hurbildu ziren, 346 emakume eta 206 gizon. Horietatik 459k kondoiak jaso zituzten eta 349k informazioa jaso zuten (ahozko informazioa + gidak, triptikoak, liburuxkak, txartelak, txapak, pegatinak); besteak beste, infekzioen analitika non lortu, nola landu sexualitate osasuntsu bat semeekin eta aluen osasunaren inguruko informazioa. Adinari dagokionez, otsailaren 19an bertaratu zirenetatik % 7,2 25 urtetik beherakoak izan ziren eta otsailaren 20an % 13,47. Aldiz, % 92,8 25 urtetik gorakoak izan ziren otsailaren 19an eta % 86,53 otsailaren 20an.

4.2. Indarkeria-protokoloak

Inauterietan bi indarkeria-protokolo egon ziren indarrean. Alde batetik, udal txoko indarkeria-protokoloa, herri mailakoa berau. Bestetik, Txosnaguneko eragileetako batek diseinatutakoa eta txosnaguneko eremuan indarrean egon zena.

4.2.1. Txosnagunea

Txosnagunea momentu honetan ez da gune bateratu bat; hau da, bi eragile ezberdinek osatzen dute espazio hori. Banaketa hori gertatu denetik eragileetako batek udalaren protokoloarekin bat egiten du eta haien hitzetan "guztien batasuna erdigunean jartzea delako helburua eta ez dutelako protokoloen arteko gerra bat egin nahi". Beste eragileak 'Itaia' Emakumeon Antolakunde Sozialistak osatutako protokoloari lehentasuna ematen dio.

Udalaren ekimenez, Itaia bere protokoloaren berri eman zion udalari, eta beraien eskuhartzeak zeintzuk ziren jakinarazi zion.

4.2.2. Udalekoa

Tolosako udalak 2013tik sexu eta genero-indarkeriaren aurkako protokoloa du. 2017an "Udal zerbitzuen betebeharrak" protokoloa jaien testuingurura egokitu zuten, 2020an, Jaietako

¹ <https://www.youtube.com/watch?v=Qgad9umOpAc>

indarkeria protokoloa berraztertu zen eta Tolosaldeko Asanblada Feministarekin intentsitate baxuagoko erasoei publikoki nola erantzun adostu zen.

Protokolo horretan udal-zerbitzuen betebeharrak zeintzuk izan behar duten azaltzen da. Batetik, emakumeari eman beharreko asistentzia; beraz festaz kanpoko kasuen berdina izango da. Bigarrenik, egoerari/informazioari eman behar zaion tratamendua azaltzen da. Udaltzaingoak informazio jaso ondoren, Alkateari, Jai eta Berdintasun Departamentuetako zinegotziei gertatutakoaren berri emango diela jasotzen da. Hirugarren atalak, deialdi publiko-bateratuari egiten dio erreferentzia. Udalaren, Mugimendu Feministaren eta Tolosako emakume-elkarteen artean deialdi bateratu bat egingo da. Kontzentrazioa eraso gertatu ondoren 24 ordura egingo da, 19:00etan Udaletxe aurrean.

Berriazko protokolo horren bitartez eragile desberdinen jarduna arautu da; udal-eragile, Mugimendu Feminista eta emakume-elkarte eta jaietan parte hartzen duten eragileena.

Jaietan protokoloa indarrean jarraitzea balio handiko urratsa da indarkeria sexistaren gaian: udalak jaietan erantzun koordinatu bat emateko konpromisoa hartzen du, lehentasunezko gaia dela aitortuz. Arlo horretan jaien aurretik eta bitartean koordinazioa garrantzitsua da prebentzioa eta arreta lanak aurrera eramateko. Ondorioz, udal-arloek parte hartzen dute: Gazteria, Gizarte Zerbitzuak eta Udaltzaingoa.

Protokoloaren esparruan eta indarkeriaren arreta eta prebentzioarenean aurten Udaltzaingorari prestakuntza zehatza eman zaio eta bestalde, Inauterietan lehen aldiz tabernariei berriazko protokoloa bidali zitzaizen gutun baten bitartez; horretan, Gune Morearen berri ere eman zitzaizen. Prebentzian egiten denarekin jarraituz, Gazteria arlotik ikastetxeei bidaltzen zaien prebentzio-gutunean Gune Morearen informazioa ere gehitu zen.

Aurten ez da erasorik salatu eta ez da protokolorik aktibatatu. Hala ere, aipatu behar da aurten Udaltzaingoei lau aldiz deitu zitzaizela laguntza eskatzeko gauean etxera itzultzeko.

4.3. Berdintasun ikuspegitik ondorio batzuk

TXALOTZEKOAK	HOBETZEKOAK
Udalak orain arteko indarkeriaren kontrako ibilbidearekin jarraitzen du, bide ona dela baloratuta. Ibilbide hau egonkortuta dagoela esan daiteke.	Indarkeriari aurre egiteko gida gaurkotu.
Protokoloaz gain, sentsibilizazio kanpainak garrantzia du (Joka Sano) eta, horretarako, euskarri eta kanal ezberdinak erabiltzen dira. Eredu hau ere egonkortuta dago.	Txosnagunearekin harreman egonkorak eraikitze saiakerarekin jarraitu indarkeria matxistari aurre egiteko.
Puntu morea lehenbiziko aldiz jarri zen eta balorazio positiboa egin zen.	
Txosnagunekoekin zubilanak izateko ahaleginak egiten dira, nahiz eta udalak nahi baino elkarlan gutxiago egon.	

5. ONDORIOAK

Behatokiak 2023an, bigarren aldiz, berdintasunaren ikuspegitik aztertu ditu Inauteriak. Lehenbiziko azterketak poza handiak ekarri zituen bezalaxe, aurtengoak ere pozak ekarri ditu. Alde batetik, **hainbat jarduera egonkortu** dira; adibidez, komunikazioan eta agerraldietan ikuspegi parekidea, berdinzalea eta anitza sistematizatu eta bermatu da, edo pregoian hitza hartzea parekidea izatea. Bestetik, **ematen ari ziren berdintasunaren aldeko urratsak jaien integratu** dira, hala nola, karrozen eta konpartsen sari banaketan Berdintasun sarian erabiltzen ziren irizpideak jaso dira. Ildo horretan, indarkeriaren aurkako estrategia egonkortu da, eta nabarmentzekoa da aurten berria izan den Gune Morea.

Behatokiak jaietako eragileekin lantzen dituen **sinergiek berdintasunaren alde urratsak ematen laguntzen dutela** ikustea pozgarria da. Kabi Alaik antolatzen duen pregoian eta txupinazoan emakume gehiagok parte ez hartzeko mugetako bat zen “emakumeen” trajek lortzeko zailtasunak. Arazoa antzeman ostean, Behatokiaren bitartez, udalak gordeta zituen eta erabiltzen ez zituen trajeak eskaini zitzaizkien; ondorioz, aurten guztira 5 emakumek parte hartu dute. Sinergiek Inauterietan eragiteko eremuak eta beharrezko baliabideak identifikatzen laguntzeaz gain, jaietan aritzen diren eragileekin zuzeneko harremana izateko tresna oso baliagarri eta baliotsu dira.

Inauterietan, gizartean bezala, berdintasunaren alde aldaketak ematen ari direla argi dago. Hala ere, oraindik hobetzekoak daude, gehienbat ematen diren aldaketak finkatzea. Hau da, momentu honetan hainbat eremutan aldaketak eman dira, baina horiek ezin dira momentuan momentuko parte hartzaileen sentsibilitatearen edo kontzientziaren baitan utzi. **Ematen ari diren berdintasunaren aldeko urratsak finkatzeko, tresnak edo bestelako estrategiak bilatu beharko dira, etorkizunean atzerapausorik egon ez dadin.** Horretarako, egokiak dira irizpideak sortzea eta sozializatzea; besteak beste, pregoia eta txupinazoaren eremukoak.

Gauetako **musikan oraindik hobekuntzarako tarte handia dago**, jotzen duten musikarien **gehiengoa nagusiki gizonak baitira**. Gai horrek bi alderdi ditu: txosnagunea eta txarangak. Lehenbizikoaren kasuan, egokiena litzateke Udalak dituen programatzeko berdintasun-irizpideak partekatzea. Era berean, gauean jo zuten txaranga eta konpartsa guztiak, bat izan ezik, mistoak ziren, aldiz, gizonzkoen presentzia askoz handiagoa zen emakumezkoena baino. Hortaz, Txarangen eremuan hausnarketa sakona eta partekatua bultzatzea egokia izango litzateke. Eremu maskulinizatuekin jarraituz, Kuttunaren izendapena legoke. Alegia, oraindik ere urte batzuen salbuespenarekin, Kuttuna gizonzkoak dira.

Laburbilduz, Inauterietan berdintasun ikuspegitik aurrera goazen heinean, nabari da badirela premia handiz hobetu beharreko eremuak. Nolabait, batzuk aurrera doazen neurrian, aurrerapausoak motelago ematen dituztenak agerikoago geratzen dira. Behatokitik badakigu urrats horiek emateak lan handia suposatzen duela eta horiek finkatzeko urte batzuk ere beharko direla, baina Behatokiak apustu horretarako bidelagun izan nahi du.

PROIEKTUAREN LIDERGOA



LAGUNTZAREKIN



PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA



www.farapi.com

943 00 35 85

info@farapi.com

Mundaiz bidea 10, 23.bulegoa
20012 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)